

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

2784

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 13koa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, Europako Gaietarako Zuzendaritzako Kanpo-Harremanetarako Teknikari Espezialista bat kargutik kentzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliaturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Iñaki Serrano Lasa jaunak Europako Gaietarako Zuzendaritzako Kanpo-Harremanetarako Teknikari Espezialista izateari utz diezaiola (kodea: 511291; dotazioa: 2); eta egindako lanarengatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargutik kentze horrek 2022ko ekainaren 9an izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukurako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 13a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.